



SAREAN EUSKARAZ

EUSKARAZKO KULTURA
DIGITALAREN III. JARDUNALDIAK

2019_URRIAK 29_BALUARTE_IRUÑA

EGITARAJA

Nafarroako  Gobierno
Gobernua de Navarra


euskarabidea



EUSKARAZKO KULTURA DIGITALAREN GUNEA

Iruñeko Baluarte Jauregia Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia berrien gune garrantzitsu bihurtuko da urriaren 29an, Sarean Euskaraz jardunaldian gozatzeko aukera bikaina izanen dugu. Nafarroako Gobernuak, Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuaren bitartez, antolatuko da jardunaldia. IKTen alorrean eta, oro har, kultura digitalaren esparruan euskararen erabilera sustatu nahi duen egitasmoa da.

Gazteak izanen dira hitzordu honetan protagonista, DBHko 4.mailako ia 500 ikaslek hartuko baitute parte. Aurtengo berritasuna eta interesgune nagusia Era Aretoa izanen da, teknologia berriez egiten dugun erabileraren inguruan hausnartzera bideratutako gunea, hain zuzen ere. Maider Likona (Gipuzkoako Software Askea elkarte) eta Ane Ortiz sexologoak hitzaldi interaktibo bana emanen dute pribatutasunaren eta sare sozialen bidezko harremanen inguruan, hurrenez hurren. Izan ere, teknologia berriak gero eta gehiago erabiltzen ditugu gure bizitzako eremurik intimoenetan, eta horregatik da garrantzitsua erabilera horren ondorioak (ona, erdipurdikoa ala txarra) ezagutzea eta kalteak saihestea.

Ekimenak hirugarren ekitaldia beteko du aurten. 2017ko Euskararen Nazioarteko Egunaren harira, abenduaren 1ean, Nafarroako Gobernuak Euskara Sarera jardunaldia antolatu zuen, Baluartean. Iaz, esperientzia errepikatu zen bi egunez (azaroak 6 eta 7) parte-hartzaile kopurua bikoiztuta. Eta datorren urriaren 29an, hirugarrenez, Sarean Euskaraz jardunaldia euskarazko IKTen eta kultura digitalaren erreferentziazko gune bilakatuko du Iruñeko Baluarte Jauregian.

AURKIBIDEA

PLANOA	04
ORDUTEGIA	06
ERA ARETOA	07
INFO ARETOA	08
IKAS ARETOA	10
IKT IKASTARO-ZIKLOA	12





SAREAN EUSKARAZ

Baluarte Jauregia


3_Solairua





INFO
ARETOA

BALUARTE PLAZA





ORDUTEGIA

URRIAK 29

8:45 SARRERA

9:00 HARRERA EKITALDIA

09:15-10:30 LEHEN TXANDA

10:45-12:00 BIGARREN TXANDA

12:30-13:45 HIRUGARREN TXANDA

ERA ARETOA

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia berriek gero eta presentzia handiagoa dute gure egunerokoan, baita esparru pribatu eta intimoenetan ere. Aldaketak itzelezko abiaduran datoz gainera: gailuak, app-ak, sare sozialak... etengabe agertu eta desagertzen dira berriagoei bide emateko. Baina horiek guztiak lanabesak besterik ez dira; erabiltzaileoi dagokigu erabilera ona, erdipurdikoa ala txarra egitea, eta horrek izan ditzakeen ondorioen jakitun izatea. Pribatutasunaren eta sare sozialen bidezko harremanen inguruko hitzaldi bana hartuko du Era Aretoak, IKTekin edota hauen aurrean geure burua ez ezik gure ingurukoena ere zaintzeko jarraibideak partekatzeko.

- **Pribatutasuna Sarean** – *Maidar Likona* – *Gisa Elkarte*

Sare sozialak gero eta gehiago erabiltzen ditugu gure eguneroko bizitzako alor guztietan: aisialdian, ikasketetan, lanean, harremanetan... Baina nolako arrastoa uzten dugu? Nork eskura dezake informazio hori? Nolako ondorioak izan ditzake? Eta etorkizunean? Galdera horien erantzuna jasoko dugu, eta batez ere, sareak egoki erabiltzeko hainbat aholku eskuratuko ditugu.

- **Harremanak 3.0: like bat eman** – *Emaize*

Esparru digitaleko harreman afektibo-sexualen eredia aztertuko dugu, eta arriskuak gutxitzeko edo ekiditeko baliabideak planteatuko ditugu. Telefono mugikor bidezko balizko kontrolaren inguruan hausnartuko dugu. Sedukzioa eta ligatzea aro digitalean: sare sozialak eta ligatzeko APPak; maitasun erromantikoaeren mitoak plano digitalean...

Dinamiketan parte hartzeko komenigarria da telefono mugikor bat eramatea.

INFO ARETOA

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia berrien erabilera ardatz duten euskarazko bost egitasmok euren proiektuak aurkeztuko dituzte. Eta, horrez gain, Sarea erabiltzerakoan pribatutasuna zaintzeko aholkuak jasoko dituzte ikasleek.

- **Interneten ere lehen hitza euskaraz** - *Puntu Eus Fundazioa*
Euskararen ikusgarritasuna handitzeko, garrantzitsua da Sarean ere lehen hitza euskaraz egitea. Sareko lehen hitz hori, gure hizkuntza zein den adierazten duen hitz hori, gure gailuek ematen dute eta, horregatik, garrantzitsua da gailuak euskaraz konfiguratuta izatea, bai nabigatzaileak, baita mugikorrak ere.
- **Gazte Gara Gazte @ Ahotsak.eus**
Izaskun Gaston - Badihardugu Elkarte
Euskal Herriko gazteei egindako elkarrizketen bidez lekukotasunak biltzen ditu egitasmonek. Batez ere bi gai lantzeko: aisialdia eta hizkuntza. Nola bizi dute aisialdia gazteenek? Nola aldatu dira ohiturak azken urteotan? Zein zaletasun dituzte? Eta beren aisialdian zein leku du euskarak? Nola uztartzen dituzte gaztelania edo bestelako hizkuntzak?
- **Booktegi** – *Aritz Branton*
Guztion liburuak, guztiontzat lelopean, Booktegi euskarazko liburu pila eskaintzen du formatu digitalean. Bertan liburuak doan eskaintzen dira, inork ez du ordaintzen liburuen truke, eta inori ez zaio deus ordaintzen. Plataforma honek, egileei beren idazlanak zabaltzen laguntzen die, eta era berean, irakurleei lan berriak doan ezagutzeko aukera ematen die.

- **Nola kopiatu Wikipedia Wikipedia kopiatu gabe?**

Euskal Wikilarien Elkarte

Wikipedia munduko webgunerik bisitatuenetako bat da, eta euskaraz egunero bisita gehien dituena. Ikasleek ere egunero bisitatzen dute, askotan kopiatu eta itsasteko. Wikipedia kopiatzea legala bada ere, ez da hori irakasleak eskatu duena. Hitzaldi honetan Wikipediako erreferentzia sistemaren garrantzia zein den ikusiko dugu, Wikipedia kopiatu ordez, jatorrizko testuak irakurri eta kopiatzeko. Wikipedia iturri baino, beste testu batzuetarako sarbidea badelako.

- **Common Voice: teknologiarekin euskaraz komunikatu ahal izateko auzolan digitala**

Librezale

Gero eta maizago ahotsa erabiltzen dugu makinekin komunikatzeko, baina orain arteko sistemek (Google Assistant, Apple Siri, Microsoft Cortana, Amazon Alexa...) pribatutasun arazoak dituzte eta hizkuntza nagusietan bakarrik daude erabilgarri. Mozilla Fundazioaren Common Voice proiektuak arazo horiei irtenbidea eman nahi die eta Librezale taldeak gure gailuekin euskaraz eta libre aritu ahal izateko helburua duen auzolan digital erraldoi baterako deia egin du.

IKAS ARETOA

Tailer edo ikastaro praktikoan gunea da. Ikasleak 20 lagun inguruko taldetan banatuko dira eta talde bakoitzak tailer bakar batean hartuko du parte. Aldez aurretik izena eman behar da eta ikastaro batzuetarako beharrezkoa da telefono mugikorra edo ordenagailu eramangarria eramatea.

• **Musika sortu, nahastu eta zabaltzeko aplikazioak** - *Dj Makala*

Mugikorrek, tabletek eta antzeko gailuek eskaintzen dituzten musika aplikazio berriei ariko gara era erraz, intuitibo eta dibertigarrian. Musika sortzea, nahastea eta, azkenik, zabaltzea izanen da helburua.

Tailer honetan parte hartzeko beharrezkoa da smartphonea edo tableta eta aurikularrak eramatea.

• **Bideo mappinga; errealitatea areagotzen proiektzioak objektuen geometrietara doitzuz** – *Elurmaluta*

Saio honetan bideo mappingaren inguruko esperientziak landuko ditugu, oinarriko kontzeptuak praktikaren bidez ezagutuko ditugu, korapilo teknikoetan sartu gabe. Lau gune izango dira eta bakoitzean ariketa bat eginen da. Besteak beste, honako hauek eginen dira: kideen gainean proiektatutako jantziak marraztu, ikasleen aurpegiak erabiliz paretetan aurpegi berriak sortu eta irudiak geometria jakin batera doitzuz ikasi. Horrez gain, bideo mappingaren inguruko aplikazioen adibideak ikusiko ditugu.

• **AppInventor** – *Talaios*

Ikastaro honen bidez Android mugikorrentzako aplikazioak sortzeko oinarriko ezagutza jasoko dugu. App Inventor zerbitzuaren interfazea erabiliz, partaideei mugikorretarako oinarriko aplikazio bat sortzeko eta bere Android mugikorrean instalatzeko prozesua erakutsiko zaie.

Partaide bakoitzak, posible bada, Android sistema duen mugikor bat eraman beharko du.

- **Erralitate Birtuala** – *Protomakers*

Ibilbide labur bezain oparoa duen errealtate birtualaren mundura hurbiltzeko aukera izanen dugu tailer honetan, esperientzia hitzak beste dimentsio bat dauka. Betaurrekoak jantzi eta jauzi egin zure aurrean zabalduko den mundura.

- **Wikipedia** – *Euskal Wikilarien Elkarte*

Wikipedia auzolanean eraikitzen diren Entziklopediak dira. 300 hizkuntzatan dagoen proiektu honetan euskara 29. postuan dago artikulua kopuruari dagokionez, baina oraindik asko dugu egiteke. Ikasleek egunero erabiltzen dute Wikipedia, baina gutxitan saiatzen dira bertan edukia gehitzen. Entziklopedia guztiok elikatu dezakegu, lantegi honetan nola egin ikasiko dugu.

- **Arduino** – *Protomakers*

Arduino xafletarako oinarritzko programazioa, hardware aplikazioetako hizkuntza eta aukerak ezagutzeko oinarritzko hastapen ikastaroa dugu hau. Elektronika interaktiboaren munduan era arin eta praktikoan hasteko aukera. Elektronika eta programazio munduko oinarritzko kontzeptuak.

- **3D inprimagailuak** – *Protomakers*

Badakizu gai garena guk geuk gure objektuak sortzeko 3D inprimagailu baten bidez? Taldeka objektu bat sortu, diseinatu eta modelatzeko prozesu guztia segituko dugu, objektua inprimatu arte. Saretik diseinuak eskuratu eta konpartitzeko aukera ere izanen dugu.

- **Raspberry Pi** – *Iñaki Izkue*

Raspberry Pi Cambridgeko irakasle talde batek sorturiko plaka ordenagailu txiki eta merkeak dira. Hardware libreko proiektua da, eta irabazi asmorik gabeko ekimena. Lantegi honen bidez, taldeka, Raspberry Piren oinarritzko funtzionamendua ezagutzeko proiektu simple bezain dibertigarriak gauzatuko ditugu.

IKT eta KULTURA IKAST

Datozen asteetan badira Iruñerrian euskarazko Komunikazio eta Informazio Teknologiekin zerikusia duten doako hainbat ikastaro. Batzuk 6 ordukoak izanen dira (3 orduko bi saiotan banatuta), eta beste batzuk 2 ordukoak.

Zergatik komunikatzen dugu gaizki?

Blogetan eta, oro har, sare sozialetan komunikatzeko kontuan hartu beharreko teknikak eta gakoak lantzeko tailerra: bloga sortu bai, baina nola erabili, nola idatzi edota nori zuzendu. Era berean, euskaraz eta era librean lan daitezkeen bideak ezagutzeko balio izanen du.

ZUZENDARIA:

iAmetza enpresa.

EZAUGARRIAK:

6 ordu, 3 orduko bi saiotan banatuta. 12 urtetik gora edozein adina.

NON / NOIZ:

ATARRABIA

Azaroak 6 (17:00-20:00) eta 13 (17:00-20:00).

Kultur Etxea

DIGITALAREN gaineko ARO-ZIKLOA

Musika sortu, nahastu eta zabaltzeko aplikazioak

Mugikorrek, tabletek eta antzeko gailuek eskaintzen dituzten musika aplikazio berriak era erraz, intuitibo eta dibertigarrian erabiltzera bideratutako saioa; Sarean musika sortu, nahastu nahiz zabaltzeko.

ZUZENDARIA:

Dj Makala

EZAUGARRIAK:

2 orduko saio bakarra. Ezinbestekoa nork bere smartphonea edo tableta eta aurikularrak eramatea. 12 urtetik gora edozein adina.

NON / NOIZ:

IRUÑA

Azaroak 9 (12:00-14:00).
Condestable Jauregia.

IKT eta KULTURA IKAST

Robotika ikastaro-lantegia

Robotika eta automatizazioan murgiltzen hasteko tailerra, baita eskema elektronikoak interpretatzen ikastea ere, Arduino mikrokontroladorea beste elementu elektroniko batzuekin konektatzeko. LED bat piztu, zenbait sarrera landu: pultadoreak, tenperatura sentsorea... bozgailu eta motoreak irteera gisa aktibatu... Ikasitakoarekin, parte-hartzaileek, binaka, automatizazio proiektutxo bat egingo dute.

ZUZENDARIA:

ProtoMakers kluba

EZAUGARRIAK:

6 ordu, 3 orduko bi saiotan banatuta.

NON / NOIZ:

ANTSOAIN:

azaroak 4 (16:30-19:30) eta 11 (16:30-19:30).

Gaztelekua.

BARAÑAIN:

Azaroak 6 (16:30-19:30) eta 13 (16:30-19:30).

Liburutegia.

IRUÑA:

Azaroak 8 (17:00-20:00) eta 15 (17:00-20:00).

Condestable Jauregia.

DIGITALAREN gaineko ARO-ZIKLOA

Pribatutasuna Sarean

Sare sozialak gero eta gehiago erabiltzen ditugu gure bizitzako alor guztietan: aisialdian, ikasketetan, lanean, harremanetan... Baina nolako arrastoa uzten dugu? Nork eskura dezake informazio hori? Nolako ondorioak izan ditzake? Eta etorkizunean? Galdera horiei erantzutera eta, batez ere, sare sozialak egoki erabiltzeko hainbat aholku aletzera bideratutako saioa.

ZUZENDARIA:

Maider Likona

EZAUGARRIAK:

2 orduko saio bakarra.

NON / NOIZ:

IRUÑA.

Azaroak 9 (10:00-12:00). Condestable Jauregia.

Informazio gehiago
eta izen-emateak:

www.sareaneuskaraz.eus

